

HUTSARI HIZKETAN: ISILTASUNA ETA MEMORIA ARGENTINAKO AZKEN DIKTADURA BITARTEAN

Erika Martínez Cabrera

Granadako unibertsitatea

erikamartinez79@gmail.com

Aipatzeko gomendioa || MARTÍNEZ CABRERA, Erika (2012): "Hutsari hizketan: isiltasuna eta memoria Argentinako azken diktadura bitartean" [artikulua linean], *452ºF. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 105-122, [Kontsulta data: dd/mm/aa], <http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mono-erika-martinez-cabrera-eu.pdf>

Ilustrazioa || Nadia Sanmartín

Itzulpena || Teresa Pradera

Artikulua || Jasota: 31/07/2011 | Komite zientifikoak onartuta: 15/11/2011 | Argitaratuta: 01/2012

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honen helburua Argentinako azken diktaduraren diskurtsoa aztertzea da, eta isiltasunaren eta memoriaren bitartez nola eraiki zen ulertzen saiatzea. Horretarako, indarkeriaren teknologien oinarria sakon ikertuko dugu, baita horrek diskurtsoan eragin dituen ondorioak ere: gizarteak istorioak kontatzeko gaitasuna galtzea, herritar guztiak izugarrikerien aurrean begiak ixtea eta hizkuntza bihurritzea, hain zuzen ere. Jarraian, Prozesuaren fikzioa eraikitzeko diskurtsoaren ardatz nagusiak aztertuko ditugu: mesianismoa, manikeismoa eta organizismoa. Amaitzeko, dogmatismoari aurka egiteko sortu ziren diskurtso sinboliko berriak ebaluatuko ditugu, fikzio partzialak, zatikatuak eta behin behinekoak, historia ofiziala zalantzan jarri zutenak.

Gako-hitzak || Argentinako diktadura | Indarkeriaren teknologiak | Talde-memoria | Isiltasuna | Fikzioa.

Abstract || This article is an analysis of the last Argentinean dictatorship discourse and its articulation through the instances of silence and memory. To elucidate them, we deal with the technologies of violence and its discursive consequences: the exhaustion of the collective ability to tell stories, the denial of collective aberration and the perversion of language. From there, we study the discursive axes through which the fiction of the Process was built on: messianism, manichaeism and organicism. Finally we evaluate the development of new symbolic discourses in response to dogmatism, the creation of partial, fragmented and provisional fictions that challenged the official story.

Keywords || Argentinean dictatorship | Technologies of violence | Collective memory | Silence |

No existen en la historia de los hombres paréntesis inexplicables. Y es precisamente en los periodos de 'excepción', en esos momentos molestos y desagradables que las sociedades pretenden olvidar, donde aparecen sin mediaciones ni atenuantes, los secretos y las vergüenzas del poder cotidiano.

Pilar Calveiro

0. Sarrera. Disimuluaren historia, edo Alemaniaren kasua

Zer diskurtso mota erabili ziren Argentinako azken diktadura bitartean? Jarraian, galdera horri erantzuten saiatuko gara, eta isiltasuna eta memoria nola erabili ziren aztertuko dugu. Horrez gain, indarkeriaren teknologiaren oinarriari buruz sakon arituko gara, eta, amaitzeko, historia ofizialaren dogmari erantzun zioten diskurtso sinboliko berrien sorrera ebaluatuko dugu.

Nicolás Casullo dioenez (2001), azken diktaduran Argentinan bizi izan zen izu egoera larriari buruzko eztabaida akademikoek askotan egin diote erreferentzia Walter Benjaminek narrazioari, indarkeriari eta memoriari buruz egindako hausnarketei. Casulloren ustez, Benjaminen pentsaerak azken urteotako Argentinako historiari buruzko hausnarketei egin dien ekarpen garrantzitsuena entzulearen («el escucha») figurarena da, «que hospeda el contar del narrador [...], el lugar y el tiempo del relato de la historia, de los usos de la memoria, de la construcción de la experiencia» (2001: 5). Entzulea —Benjaminen hitzetan—, desagertzeko zorian dagoen narratzailearen alde ezkutua da, istorioak kontatzeko gaitasuna agortzen denean bizirik irauteko duen aukera bakarra. «El narrador» (1936) lanean, berlindar filosofoak adierazten du I. Mundu Gerraren ondorioetako bat narrazioaren artea desagertzea izan zela, bizipenak trukatzeko gaitasuna galdu egin zela

:

Con la Guerra Mundial comenzó a hacerse evidente un proceso que aún no se ha detenido. ¿No se notó acaso que la gente volvía enmudecida del campo de batalla? En lugar de retornar más ricos en experiencias comunicables, volvían empobrecidos. Todo aquello que diez años más tarde se vertió en una marea de libros de guerra, nada tenía que ver con experiencias que se transmiten de boca en boca (1991: 112).

Entzulea historia noiz kontatuko zain dagoen norbait da, eta memorian gordetzen du zorigaitzak zatitutako garai bat. Casullo dioenez, entzuleak posible egiten ditu hausturak,

interrupciones y suspensiones que resisten a las políticas dominantes sobre la historia. No se trata de una operatoria de transmisión terminológica, de un calculismo teórico, de una traducción sistematizada de análisis. Se trata de una forma de existencia en el lenguaje, de una historia del narrar (2001: 6).

Ildo beretik, II. Mundu Gerrak Alemaniaren ideologian eta diskurtsoan izan zituen ondorioak laburki aztertzea baliagarria izan daiteke diktadura bitartean eta gero Argentinan sortu ziren arazoetako batzuei heltzeko. W. G. Sebalden nabaritu zuen 1945etik aurrera gizarteak izan zuen erantzuna Benjaminek Alemanian hautemandakoaren antzekoa izan zela¹. Sebalden *Sobre la historia natural de la destrucción* (1999) saiakeran adierazten du gerrak eragindako suntsipenaren ondoren beste sarraski bat etorri zela: memoriarena, zein historiaz kanpoko errealitate batek zanpatu zuen, eta gizartea aurrera begiratzera bultzatu zuen, gertatutakoari buruz berriro hitzik egin gabe (2003: 17).

Lenguaje y silencio (1976) saiakera bilduman, George Steinerrek XX. mendeko izugarrikeria politikoek eta masen teknologiak eguneroko hizkuntzan izan zuten eragina aztertzen du, eta bi erantzun literario posible piztu zirela zehazten du: komunikazioaren babesgabetasunaren transmisioa edo isiltasunaren erretorika (Steiner, 2003: 67-8). «El silencio y el poeta» (1966) lanean, Steinerrek zera ondorioztatzen du: Kafkaren lana eta haren «jerigonza burocrática» deritzona zenbait hamarkada beranduago naziek hizkuntzarekin egingo zutenaren «profecía exacta» bat da (2003: 68). Ideia horrekin bat dator Ricardo Piglia ere, eta Kafka Hitler buruan dugula irakurtzeko proposatzen du *Respiración artificial* (1980) eleberrian. Steinerrek Kafkaren iragarpenari («profecía exacta» horri hain zuzen ere) buruzko aztarnak ematen ditu. Esaterako, aipatzen du Steinerrek, *Cartas a Milena* (1920-1922) lanean, Txekiako nobelagileak behin eta berriz esaten du ezinezkoa dela hizkera literario egokia lortzea klixeek akitutako hizkuntza erabiliz (2003: 68).

Steinerren ustez, Kafkaz gain, Hofmannsthal, Wittgenstein, Broch eta Schönberg ere gerrarte garaian sortutako hizkuntzarako mesfidantzaren produktu dira, guztiek irizten baitzioten «el idioma alemán no fue inocente de los horrores del nazismo» (Steiner, 2003: 119-120). Hizkuntza gizakien gizatasuna suntsitzeko erabili zen, eta hitzak izua eta faltsukeria zabaltzeko tresna bihurtu ziren. Sebalden ondorioei aurre hartuz, Steinerrek dio oroitzapenak deuseztatzea ezinbestekoa izan zela Alemania berriro eraikitzeko, bere 1959ko artikuluari izena ematen dion «Milagro hueco» deritzon hori gertatu behar izan zen. Baina hizkuntza ez da ahazten: «La historia de posguerra del idioma alemán —idazten du— ha sido la historia del disimulo» (2003: 128). Disimulu hori ongi kalkulaturako isiluneez osatzen dute, baita eguneroko hizkuntzaren keinuek eta lagunarteko hizkerako esamoldeek ere, askatasunaren atzealdea baino ez diren klixeez publikoek (2003: 94).

Argentinan azken diktadura bitartean hizkuntzak izan zituen arazoak zenbait ezaugarri ditu komunean Alemanian gertatutakoarekin.

OHARRAK

1 | Jorge Monteleonek dio Bigarren Mundu Gerran, Lehenengoan gertatu zenaren prozesu «inverso» bat gertatu zela: Benjaminek azpimarratzen duen geldialdi narratiboaren ordean, «la verborrea de la narración» nagusitu zen (2003: 27). Nahiz eta nazien garaian «aparato enunciativo del crimen» izenekoaren sofistakazioa ordura arte ezezaguna zen maila bateraino iritsi zela ukaezina izan, bizipenari buruz hitz egiteko ezintasuna eta memoriaren krisia bi gerren ondoren azaleratu zirela frogatuta dago. Nazien diskurtsoa bonben eraginez milioika herritarren heriotzaren eta alemaniar hirien suntsipenaren leku izan zirenen isiltasunari gainjarri zitzaion.

Bernardo Kordonen lanetik hasi, eta Osvaldo Bayerreneraino, Juan Jacobo Timerman edo Ricardo Piglia ahaztu gabe, badirudi gai horretan adostasuna dagoela, badagoela antzekotasunik Holokaustoaren eta Argentinako gerra zikinaren² artean. *Clarín* egunkarian, horrela idatzi zuen Claudio Martyniukek:

En nuestra propia dialéctica de progreso y de reacción, de luces y de terror, el pensamiento de Adorno no es superficial o propio de la historia de las ideas de un siglo pasado. No nos es ajeno. Todavía resta reflexionar sobre la escritura de un poema después de ESMA. Aún permanece apenas esbozado el imperativo de pensar y actuar de modo que ESMA no se repita (Martyniuk, 2003).

Fernando Reatik paralelismo horiek badirela baieztatuz ematen dio hasiera *Nombrar lo innombrable* saiakerari:

Al leer la literatura de 'la Violencia' colombiana (el periodo de guerra civil en aquel país a partir de 1948), comprendí que existían más puntos de contacto entre el caso argentino y el Holocausto judío, que entre el argentino y el colombiano [...]. Los escritores de Colombia [...] confiaban todavía en las posibilidades miméticas de la palabra [...]. Los argentinos, en cambio, nos habíamos enfrentado a la violencia treinta años después del Holocausto, cuando ya muchas de sus enseñanzas habían pasado a formar parte de la herencia cultural de Occidente (Reati, 1992: 11-12).

Holokaustoak heriotza muturreraino teknifikatzea eragin zuen, garrantzia guztia kendu zion bizitzari, eta horrek betirako markatu zuen gizakia, zein, ordudanik, Steinerren hitzetan, «homo sapiens post-Auschwitz» bihurtu zen. Argentinako azken diktaduran bizitako gerra zikinean ere, indarkeria politikarien tresna guztiz arrazionala izan zen, zitala izanagatik zibilizazioak berezko duen ezaugarria balitz bezala. Bizipen historiko horren ondorioz, postmodernismo garaiko ideia nagusietako bat erradikalizatuta bereganatu zuen Argentinak: izaki logozentrikoarenganako³ mesfidantza.

1. Diktaduraren diskurtsoa

La era del orden es el imperio de las ficciones, pues no hay poder capaz de fundar el orden con la sola represión de los cuerpos con los cuerpos. Se necesitan fuerzas ficticias.
Paul Valéry

Andrés Avellanadak idatzi zuenez, Argentinan 1930ean nahiz 1976an eman zituzten kolpeen helburua indarkeria gizartearen alderdi orotara zabaltzea izan zen, «en la vida social y en la individual, en la reflexión, en los afectos, en la actividad económica, en la práctica espiritual» (1989: 13). Argentinan, azken erregimenaren ideologia autoritaria ez zen mugatu pertsonak kontrolatzera eta desagerraraztera, kulturen eta hezkuntzan ere esku hartu zuen, borrokarako ezinbesteko alderditzat jo baitzituen arlo horiek. Bestelako ideologiak bultzatzen

OHARRAK

2 | Ikus Reati (1992: 76-77).

3 | Esan beharra dago, baita ere, historikoki, Argentinak harreman zuzena izan zuela Bigarren Mundu Gerrako errefuxiatuekin. Alde batetik, 1933 eta 1945 artean judu gehien hartu zituen Latinoamerikako herrialdea izan zen (45.000 inguru). Bestetik, hainbat funtzionario naziri babesa eman zien (begibistakoa denez, ezinezkoa da zifra zehaztea). Aliatuen artean, Argentina izan zen Ardatza osatzen zuten herrialdeekin harremana eteten azkena, eta aski ezagunak ziren Perónek alemaniar nazismoarenganako zein italiar faxismoarenganako zuen begikotasuna. 1998an CEANA sortu zen (Nazien Argentinako Jarduerak Argitzeko Biltzarra, euskaraz), «paraíso nazi» deiturikoaren funtzionamenduari buruzko informazioa antolatzeke asmoz.

zituzten bazterreko kanalak atzeman eta suntsitu egin zituzten (unibertsitatea, argitaletxeak, erregimenaren aurkako prentsa zein partidu politikoak, etab.), eta erakundeek berebiziko ahaleginak egin zituzten balio sistema nazional berria inposatzeko. Diktadurak bultzatzen zuen bizimoduak bi ardatz nagusi zituen, Avellanedaren ustez (1989: 14-15): kristautasun katolikoaren moralak, eta jabetza pribatuari errespetua. Haren kontrakoak, berriz, hiru ezaugarri zituen: lizunkeria, familia zalantzan jartzea, eta Elizaren edo nazioaren segurtasunaren kontrako erasoak. Moral-garbitasunaren aldeko borrokan, Juntak beharrezko iritzi zion herrialdearen agintaritza gizartearen eliteko kide ziren pertsonen osatzeari, haiek baitziren herritar xumeak gidatzeko prestatuen zeudenak. Mesianismo horrekin batera, galdutako handitasuna berreskuratzeko nahia ere piztu zen, Urrezko Aro argentinarra (XIX. mendean itzali omen zena, laikotasun liberalak eta demokraziak hala eraginda) berpizteko nahia. Kasu batzuetan, mesianismoa jainkotasun ahalguztidun bati buruzko fantasia bihurtu zen, nolabait zinikoa ere bazena. Ahalguztiduna izateko grina horrek, azaltzen du, esate baterako, Polizia Federalaren atxiloketa gunearen izena «El Olimpo» izatea, edo torturatzailleen ahotan zera entzutea: «Solo Dios da y quita la vida. Pero Dios está ocupado en otro lado, y somos nosotros quienes debemos ocuparnos de esa tarea en la Argentina» (Calveiru, 2004: 56)⁴.

Herrialdean gertatzen zena kontrolatuzetik, diktadura nazioartea kontrolatu nahi izatera igaro zen: Prozesuaren balioak Mendebaldekoen parean jarri zituen, biak omen baitzeuden arriskuan nazioarteko etsaiaren (materialismoaren, ateismoaren, komunismoaren eta indibidualismoaren) aurrean. Ondorio horietara heltzeko, beharrezkoa izan zen diktaduraren ideologoen zenbait oztoporri garrantzia kentzea; hala nola, nazioarteak Argentinan giza eskubideak urratzen ari zirelako jarritako salaketari. Ez zen erraza izan, Mendebaldea zeritzon izate abstraktu hark ez baitzuen batasun geografiko edo politiko zehatzik izendatzen, eta Junta Militarra kondenatzeko gai ziren gobernu errealek ere bai baitzeuden bertan (Avellaneda, 1989: 20-21).

Argentinan bizimoduaren defentsan, diktadurak, gerra zikinaren aparatu legala eta militarra martxan jartzeaz gain, aparatu linguistikoa oso bat ere abian jarri zuen, eta hari esker sortu zen Berrantolatze Nazionalerako Prozesua («Proceso de Reorganización Nacional») izeneko fikzio diskurtsiboa. Fikzio hori behin eta berriro errepikatu zuten diktaduraren aldeko funtzionarioek nahiz komunikabideek, eta gizarte osora zabaldu zen. 1989ko biltzar batean, Ricardo Pigliak Estatua definitu zuen kontakizun politikoen sare zabala antolatzen eta zentralizatzen duen erakunde gisa:

La dictadura militar construyó una ficción criminal para tratar de tapar la

OHARRAK

4 | Mesianismo katolikoa eta auto-sakralizazioa espainiar frankismoarekin lotu daitezkeen Argentinako diktaduraren programako elementuetatik bi baino ez dira. Onganía ere, 1966 eta 1970 artean, espainiar diktaduran inspiratu zen argi eta garbi. Junta Militarreko kideek euren burua Jainkoaren izenean argentinan aberriaren salbatzaile izendatu zuten era berean, Francok palio azpian desfilatu ohi zuen, Ama Birjinaren irudiek, santuek eta ostia sakratuak soilik egin zezaketen legez.

realidad. Y yo diría, y este será sin duda uno de los temas que vamos a discutir, que muchas de las ficciones que se gestaron en la época del terror de Estado todavía persisten en la Argentina (Piglia, 2001: 97).

Izan ere, Pigliaren ustez, gogoratzearen antonimoa ez da ahaztea, baizik eta memoria faltsu bat sortzea, fikziozko diskurtso bat, bizipen kolektiboa desitxuratzen duena. Gizartea kontakizunez bete da, eta Estatuak «una máquina de producir ficciones» (2001: 102) da. *Crítica y ficción* lanean (1986), Pigliak pasadizo hau kontatzen du: 1977an, bidaia labur baten ondoren Buenos Airesera bueltatu zenean, kaleko seinaleetan aldaketa batzuk nabaritu zituen; autobus geltokietan, kartel berri batek «Zona de detención» (Atxiloketa gunea) zioen. Zera dio Pigliak horren harira:

Tuve la impresión de que todo se había vuelto explícito, que esos carteles decían la verdad. La amenaza aparecía insinuada y dispersa por la ciudad. Como si se hiciera ver que Buenos Aires era una ciudad ocupada y que las tropas de ocupación habían empezado a organizar los traslados y el asesinato de la población sometida. La ciudad se alegorizaba. Por lo pronto ahí estaba el terror nocturno que invadía todo y a la vez seguía la normalidad [...]. El efecto siniestro de esa doble realidad era el efecto de la dictadura. La amenaza explícita pero invisible fue uno de los objetivos de la represión. Zona de detención: en ese cartel se condensaba la historia de la dictadura (2001: 107).

Diktaturaren lexikoak eguneroko hizkuntza kolonizatu zuen, eta, aldi berean, diktaturaren hizkerak eskizofrenikoki lan egin zuen Estatuaren terrorismoaren mekanika zuzenean aipatzea ekiditeko eufemismoak sortzeko, lexikoari kutsu burokratikoak, progresista eta zientifikoa emanez: torturatzea «interrogar» zen; hiltzea «mandar para arriba» edo «hacer la boleta»; bahitzea «chupar» zen, eta bahitzaileak «patotas»; hildakoak «bultos» edo «paquetes»; eta tortura erabiliz aitorten bat lortzea «quebrar»⁵. Diktaturaren diskurtsoak sortu zuen eskizofrenia orokor horren beste eragileetako bat estatuaren izuaren agenteen ekintza ulertezin batzuen eta atxiloketa gunetako prozedura arrazionalen arteko kontrastea izan zen. Pilar Calveirok (2004: 81) kontzentrazio-Estatuaren logika bihurri deritzo egoera horri.

2. Manikeismoa, autoritarismoa eta gauza bihurtzea

Baina, zein da autoritarismo horren jatorria? Sergio Bufanok (1984) dio, espainiarrek, Latinoamerika konkistatu zutenean, mesianismoarako joera eta erlijio dogmatikoa oso errotuta utzi zituztela; eta horrek, idazlearen esanetan, Argentinako agintarien jokaera anitz azalduko lituzke, esaterako, totalitarismoarako grina eta egia absolutu bat inposatzeko nahia. Reatiren ustez, 70eko eta 80ko hamarkadan Argentinako ideologiaren ezaugarri izan zen diskurtso manikeoa espainiarrek politikarenganako zuten aurkakotasunak eragindakoa

OHARRAK

5 | Calveirok (2004) eta Martyniuek (2004), haien saiakeretan, Junta Militarrek erabiltzen zuen hizkera eufemistikoaren hainbat adibide bildu zituzten.

ere izan daiteke. Nahiz eta askotan Argentina herrialde zibilizatutzat eta europartzat jo izan den, Reatik (1992: 39) Eduardo Pavlovskyren edo Jorge B. Riveraren hausnarketak gogorarazten dizkigu, non azaltzen den gerra zikina bizirik jarraitzen duen primitibismo baten ondorio dela, Haitiko gertaerak edo Buenos Aires hiriaren fundazio odoltsua (indigenen esku) bezalaxe. Leopoldo Allub-en (1983) iritziz, latinoamerikar herrialdeetako autoritarismoaren oinarria XIX. mendean sortu ziren estatu kapitalistetan dago, eta agintariak demokrazian zuten konfidantza ezean. Mesfidantza horrek XX. mendean hainbat estatu zapaltzaile agertzea eragin zuen, batzuetan itxura demokratikoa zuten erregimen populista gisa, eta beste batzuetan, erregimen militarren bitartez.

Jatorria edozein izan zelarik ere, 1976tik aurrera lehenagoko gobernu militarren manikeismo ideologikoa indartu egin zen, guztiz paranoiko izatera iristeraino, eta obsesio horren helburua erregimenaren kontrako edozein hitz edo ekintza desagerraraztea izan zen. Diktadurak diskurtso bat sortu zuen, giza eskubideak errespetatzeari uztea eta nazioaren ustezko defentsan eragindako sarraskia justifikatzen zuena. Elkarren aurkako bi gizarte eta ideologia esfera sortzeari, Calveirok autoritarismoaren «lógica binaria» deritzo. Logika horren arabera, Argentina subertsiboen aurkako gerra baten erdian zegoen, eta, Calveiroren esanetan, gerrillak ez zuen hori ukatu, «prefería representarse como un Ejército que desafiaba a otro antes que como una pequeña fuerza insurreccional» (2004: 89). Ildo beretik, zera idatzi zuen Reatik:

El tono mesiánico es evidente al traspolarse el conflicto social argentino a una lucha que no solo trasciende las fronteras geográficas («guerra mundial») sino incluso las temporales («atravesada los siglos»), convirtiendo el enfrentamiento en parte del batallar eterno entre el Bien y el Mal. Los representantes del gobierno, imbuidos de una mística y una misión que creen divina, se sienten combatientes de una batalla que transcurre tanto en tierra como en las esferas celestiales (Reati, 1992: 44).

Reatik (1992: 46-47) aldi berean aztertzen ditu eskuin militarren manikeismoa eta ezkerrekoek eraiki nahi izan zuten argentinar imajinarioa, hura ere mesianikoa eta manikeoa. Autoritarismoaren erreflexuak gizarte osora hedatu izanak azal ditzake bien artean dauden antzekotasunak, baina ezker peronistaren bilakaerak ere badu zerikusirik. Militarizazioak eta ados jartzeko ezintasunak 1976ko Estatu kolpearen garaian jada nahiko bananduta zeuden gerrillak oraindik gehiago ahuldu zituen. «La guerrilla había comenzado a reproducir en su interior, por lo menos en parte, el poder autoritario que intentaba cuestionar» (Calveiro, 2004: 17).

Argentinan Estatu kolpearen aurretik nagusi zen diskurtso sozialen egitura antagonista beranduago zalantzan jarriko zuten fikzio

literarioaren bitartez, non diskurtso sinboliko eta zeharrak agertu ziren, 60ko hamarkadako ideologia ezkertiar dogmatikoaren errealismo sozial mimetikotik urruntzen zirenak. Heroiaren eta borroaren muturreko erretratuaren aurrean, diktaduraren bakarrizketaren aurrean, joera berri bat nagusitu zen —askotan polifonikoa—, bestearen ahotsari garrantzia eman nahi ziona, hala narratiban nola poesian⁶. Andrés Avellanedaren hitzetan:

El alejamiento del canon realista, que hasta la década anterior había sido preponderante, se intensifica a partir de 1982-83, debido en parte a que el periodo represivo promovió un alejamiento de aquellas formas que evidenciaran el referente histórico e indicaran un interés o una interpretación de la realidad política (en Reati, 1992: 56).

Nahiz eta zalantzarik gabe jendeak errepresioari zion beldurrak eragina izan zuen, ezin esan daiteke hori izan zela errealtatearen mimesitik ihes egiteko behar horren eragile bakarra, erbestean zeuden idazleek eta diktaduran zehar idatzi arren argitaratu ez zutenek ere joera bera izan baitzuten. Bestalde, manikeismoak besteari bere gizatasuna kendu zion, eta ukatu ere ukatu zuen; horrek azal lezake garai hartan Argentinako literaturan alteritateak izan zuen garrantzia. Suntsitu nahi zen gauza bihurtze hori pasibotasun bikoitz batek eragin zuen: alde batetik, Estatuaren indarkeriaren biktimei gizatasuna progresiboki kentzeak eragin zuen pasibotasunak; eta, bestetik, sarraski bat martxan zegoela jakin edo susmatu arren ezer egin ez zuten herritarren pasibotasunak. Herrialdea kontrolpean mantentzeko asmoz ekintzak mugatzea autoritarismoaren estrategia izan zen, beste askotan bezala; eta, kasu hartan, Batjínnek «existencia en lo ajeno» edo «pérdida del ser» deitzen dion sentimendu orokorra zabaldu zen gizartean. Batjínnek, *Estética de la creación verbal* lanean, horrela deskribatzen du ekintzaren eta nortasunaren arteko harreman hori:

Cuando dejamos de utilizar, a consecuencia de alguna enfermedad, algún miembro, por ejemplo una pierna, esta se nos presenta como algo ajeno, 'no mío', a pesar de que en la imagen externa y visible de mi cuerpo sin duda sigue perteneciendo a la totalidad (Batjín, 1982: 45).

Lenguaje y silencio (1976) lanean, Steinerrek gizatasuna kentzearen prozesua kontzentrazio esparruetan nahita bilatutako zerbaiten gisa aztertzen du. Buchenwald edo Auschwitz masan suntsitzeko produkzio-kate gisako lantegiak ziren, eta haien azken produktua heriotza zen. Baina hura aurkitu aurretik, presoak umiliatu egiten zituzten, torturatu eta haien izatea ahuldu, azkenerako haien gizatasunari uko egitera iritsi arte, bizirik iraungo bazuten. Erresistentziarik eza eta gauza bihurtzea, beraz, indarkeriaren emaitza zuzena dira (2003: 1991). Argentinan, bizirik irten ziren askok adierazi dute presoak ofizialen edo atxiloteta gunearen ondasuntzat zituztela, eta beste zentro batzuetara bidaltzen zituztela, mailegu

OHARRAK

6 | «Literatura, ideología y figuración literaria» izeneko artikulu batean, badirudi Beatriz Sarlok zeharka erreferentzia egiten diola Batjín-en azterketa-ereduari, esaten duenean Prozesuaren «monólogo» hari beste eredu batek aurka egin ziola, hain zuzen ere «un modelo formalmente opuesto: el de la pluralidad de sentidos y la perspectiva dialógica».

edo opari gisa. Steinerren aurretik, Simone Weilek ere antzeko hausnarketa egin zuen indarkeriari buruz. *La gravedad y la gracia* (1947) lanean, frantziar pentsalariak biktimaren eta borroeroaren arteko harremanari buruz zera esaten du:

La fuerza hace del hombre una cosa, el «inútil peso de la tierra», y el cadáver es la máxima expresión de esa cosificación, el efecto supremo de la fuerza, como la muerte física es el grado supremo de la desgracia [...]. El contacto con la espada supone la mancha misma, tanto da que se haga por el lado de la empuñadura como por el lado de la punta (Weil, 1994: 31 y 106).

Argentinako diktadurari dagokionez, Calveirok hala azpimarratzen du: «denigrar y denigrarse son parte de una misma acción. En este sentido, la dinámica del campo, al buscar la humillación de los secuestrados, encontró el denigramiento de su propio personal» (2004: 103). Diktadura krimen-makina zen, eta burokratak engranajearen piezak; haiek ere, nahiz eta gertatu zenaren erantzule izan, bakoitza zegokion tokitik, objektuak ziren. Gizadia, Levinasek esaten zuen legez, bestearen begiradari ematen zaion erantzuna bada, pertsonai burua estali zietenak eta pertsonak desagerrarazi zituztenak «cosas sin ser» dira, «artefactos hacedores de terror» (Martyniuk, 2004: 114).

Gauza bihurtzearen eta isilpeko hilketen aurrean, garai hartako fikzioak beste diskurtso bat eratu zuen, bestearen ahotsak indar handia zueneko fikzio bat, non indarkeria begi bistan erabiltzen zuten erraz identifika zitezkeen pertsonak, eta borondatearen emaitza zen (hilketa, suizidioa, bortxaketa...). Dostoievskiri erreferentzia eginez, Batjinek dio errusiar eleberrigilearen munduan «no existen las muertes como hecho orgánico objetivo en el que no participe la conciencia del hombre activa y responsable» (1982: 342). Heriotza horiek funtzio bera dute Argentinako fikzioan, bai diktaduran zehar eta bai gero ere. Era berean, elkarrizketak garrantzia handia izan zuen argentinatar fikzioan, diskurtso autoritarioaren manikeismoari aurre egiteko bidea izan baitzen. Batjinek arreta berezia eskaini zien gauza bihurtzearen baldintza sozial eta etikoei mundu kapitalistan⁷, eta haren ustetan, elkarrizketa da bestearen «su libertad y su carácter inconcluso» (1982: 332) bermatzen duen jarrera bakarra. Jarraian datorren aipuak argi azaltzen du bakarrizketaren eta gauza bihurtzearen arteko harremana. Aipatu beharra dago, idazleak izendatzen duen bakarrizketak barne hartzen duela ez bakarrik diktaduraren diskurtsoa, baizik eta fikzioen diskurtsoa ere, duten ideologia dutela ere, gizakia eta errealitatea ulertzeko era bakarra eskaintzen baitute:

El monologismo en sí mismo niega la existencia fuera de sí mismo de las conciencias equitativas y capaces de respuesta, de un otro yo (el tú) igualitario. Dentro de un enfoque monológico (en un caso límite puro); el

OHARRAK

7 | *Estética* lanean (1982), hala idatzi zuen Batjinek: «Dentro del capitalismo, la cosificación es una forma de violencia (económica, política e ideológica) contra la que solo es posible luchar con medios externos: “violencia revolucionaria justificada”» (339).

otro sigue siendo totalmente objeto de la conciencia y no representa otra conciencia [...]. El monólogo está concluido y está sordo a la respuesta ajena, no la espera ni le reconoce la existencia de una fuerza decisiva. El monólogo sobrevive sin el otro y por eso en cierta medida cosifica toda la realidad. El monólogo pretende ser la última palabra. Encubre al mundo y a los hombres representados [...]. El diálogo inconcluso es la única forma adecuada de expresión verbal de una vida humana auténtica (Bajtín, 1982: 334).

Argentinako azken diktaduraren diskurtsoaren eta historia ofizialaren aurkako borrokan fikzio partzialak, zatikatuak eta behin-behinekoak erabili zituzten. Bakarrizketek bestearen ahotsari egin zioten leku. Errealismo soziala dogmatismo zaharren ezaugarria zelakoan, izaera alegorikoa eta irakurketa anbigua zuen estetika berri batek ordezkatu zuen errealismo mota hori. Errealitatearen bertsio bat bilatzeko nahia zaharkituta gelditu zen, eta eztabaida ideologikoak (Batjínnek deskribatzen zuen zentzuan) hartu zuen erreleboa. Beatriz Sarlok dioenez,

[e]nfrentada con una realidad difícil de captar, porque muchos de sus sentidos permanecían ocultos, la literatura buscó las modalidades más oblicuas (y no solo a causa de la censura) para colocarse en una relación significativa respecto del presente y comenzar a construir un sentido de la masa caótica de experiencias escindidas de sus explicaciones colectivas (1987: 34).

Mimesia apurtzea, Sarloren hitzetan (1987: 58-59), Erregimenak herritarrak bitan zatitzeko (abertzale leialak eta etsaiak) baliatutako orden naturalaren logika ezbaian jartzeko modu bat izan zen. Diktaduraren diskurtsoaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa izan zen edozein irudikapenen izaera konbentzionala azpimarratzea. Esperientzia errealitatetik ahalik eta hurbilen irudikatzeari uko egite hori argentinar idazleen ezaugarri komun bihurtu zen, baita erbestean zeudenen artean ere.

Amaitu aurretik, komeni da ikuspuntu guztiak arretaz aztertzea. Badirudi kritikariek aho batez onartzen dutela garai hartako fikzioak hiru ezaugarri nagusi izan zituela: elkarrizketaren erabilera diktaduraren bakarrizketa ideologikoari erantzuteko; subertsioaren eta konplotaren mamuaren presentzia; eta alegoria, kaosa berregituratzeko tresna gisa eta ulertu ezin denari emandako erantzun gisa.

Diskurtso autoritarioaren trama subertsiboak zigortzeko ekintzak legitimatzeko eraiki zen, arrotzak ziren horiek, moralik gabekoak, arriskutsuak, errudunak eta gizakien azpitik zeuden horiek zigortzeko: gerrillariak, politikoak eta sindikalistak; baina baita giza eskubideen aldeko ekintzaileak, intelektualak, edo argi ez dauden arrazoiak zirela medio oposizioaren zakuan sartu zituzten guztiak. Calveirok bere lanetako batean bahitu duten apaiz bati bere torturatzailerak

esan ziona biltzen du: «Vos no sos un guerrillero, no estás en la violencia, pero vos no te das cuenta que al irte a vivir allí (a la villa de emergencia) con tu cultura, unís a la gente, unís a los pobres, y unir a los pobres es subversión» (2004: 90-91).

Avellanedak azpimarratzen duenez, Prozesuak gizartean zabaltzen du badagoela «plan diabólico maquinado pacientemente a lo largo de muchos años por obra de ideólogos que llevaron a cabo con éxito una tarea de “subversión intelectual”» (1989: 15). Konplot horren emaitza ideólogo komunistak artean, kulturean eta hezkuntzan sartu izana litzateke, eta horrek arriskuan jarriko luke biztanleria ahulena: gazteak eta haurrak; eta diktadurak haiek defendatzeko beharra zuen. Konplotaren aurka borrokatzeko neurri ofizialak hezkuntza- eta kultura-sistema sakonki aldatzea eta balio moral nazionalak bultzatzea izan ziren; itzaletan, gerra zikina jarri zuten martxan.

Diktaduraren diskurtsoaren logikan, subertsioa ikusi ezin zitekeena zen, eta subertsioa, berriz, etsai ikusezina: banderarik ez aurpegiarik gabeko infiltratu bat, disimuluan zebilena eta itzalean ekiten zuena. Pilar Calveirok, bere *Poder y desaparición* lanean Camps Generaleren adierazpen hau biltzen du: «Aquí libramos una guerra. No desaparecieron personas, sino subversivos» (2004: 37 eta 89). Diskurtso nazional hori ez zen 1976ra arte agertu; Avellanedak dioenez (1989: 15), 50ko hamarkada amaieran azaleratu zen, zentsuratzaillea herritarrak hezi eta etsaien ideologia ustela eta subertsioa gizartean hedatzeak sor zitzakeen arriskuetatik defendatuko zituen pertsona zelako ideia nagusitu zenean. Hala, azken diktadura garaiko fikzioan hain ohikoak diren konspirazioak eta paranoiak Argentinako historiaren kontakizun ofizialaren ardatz garrantzitsuenetarikoa izan ziren. Pigliak erreferentzia egiten dio behin eta berriz errepikatzen zen ezaugarri horri, eta irakurketa melodramatikoa ematen dio:

La concepción conspirativa de la historia tiene la estructura de un melodrama: una fuerza perversa, una maquinación oculta explica los acontecimientos. La política ocupa el lugar del destino. Y esto en la Argentina no es una metáfora: en los últimos años la política secreta del Estado decidía la vida privada de todos. Otra vez la figura de la amenaza que se planifica desde un centro oculto (en este caso la «inteligencia del Estado») y se le impone a la realidad. Es lo que sucedió con el golpe de 1976 (2001: 36).

Hizkuntza etsaiaren tresna eraginkorrenetzat zuten. Ondorioz, ez da harritzekoa Armando Lambruschinik zera uste izatea: «es tarea militar seguir con atención los giros idiomáticos, ciertas modas verbales, para saber qué clase de compulsiones está sufriendo la libertad de raciocinio colectivo» (Avellaneda, 1989: 17). Intelektualen borroka militarrenarekin paraleloan zihoan borroka zen. Subertsioen jazarpen kulturalak (irakasleak, zientzialariak, idazleak, kazetariak)

lege berriak sortzea, kartzelatzeak, erbesteratzeak eta desagerketak eragin zituen, guztiak ere «estrategia global contra la subversión» horren barruan. Harrigarria bada ere, nahiz eta beranduzko gerrillariak gaitzesteraino heldu, zera zioen Peronek 1970an: «La subversión debe progresar», edo «Lo que está entronizado es la violencia. Y solo puede destruirse por otra violencia. Una vez que se ha empezado a caminar por ese camino no se puede retroceder un paso. La revolución tendrá que ser violenta» (Calveiro: 2004: 15).

Jorge Monteleoneren iritziz (2003:21), etsaia desagerraraztea gizartean infiltratu zen izaki ikusezin bat zela frogatzeko bidea izan zen, diskurtso ofizialak esaten zuen moduan. Estatuak subertsiboen ustezko ekintza klandestinoak inork aipatu edo ikusi ez zituen jardun kriminal klandestinoak erabiliz borrokatu zituen. Horrela azaltzen du Bustamante jeneralak: «En este tipo de lucha el secreto que debe envolver las operaciones especiales hace que no deba divulgarse a quién se ha capturado y a quién se debe capturar. Debe existir una nube de silencio que lo rodee todo» (Calveiro, 2004: 278). Ikusezintasunaren ideia hori atxiloketa guneetaraino iritsi zen, non atxilotuari izena kentzen zioten, burua estali, lotu eta isilarazi egiten zuten, hil aurretik hitz eginaraziko zion tortura itxaroten zuen bitartean. Gorpuaren arrastorik ez uztea edo N.N. bihurtzea (anonimoa, ezagutezina, *nescio*) zen desagertuen azken urratsa.

3. Indarkeriaren teknologiak eta organizismo berria

Junta Militarrek 1976 eta 1983 artean martxan jarri zuen gerra zikinak errepresio teknologia mota berri bat erabili zuen, ezagun denez: biztanle torturatuen eta hildakoen gorpuak sistematikoki desagerraraztea. Desagerrarazte horrek hainbat helburu zituen: Estatuaren terrorismoa existitzen zela ezkutatzea; desagertutako hurbileko pertsonen, eta gizarteari oro har, heriotzari lotuta dauden erritualak egiteko aukera kentzea; eta psikosi orokorra sorraraztea, pertsonak desagerraraztearekin batera, kale ertzetan, era kalkulatuan, bortizki torturatuak izan zirela erakusten zuten gorpu anonimoak agerraraziz. Praktika diskurtsiboari dagokionez, diktadurak garatu zuen indarkeriaren teknologiak eguneroko komunikazio moduak eraldatu zituen, eta, ezinbestean, herritarren hizkera barru-barruraino sartu zen.

Desagertuen aginte militarren errepresio-teknologi mota bat izan ziren, eta diktaduran zehar milaka pertsonen pairatu behar izan zuten gizatasuna progresiboki ukatzearen azken urratsa. Horren erakundeetako parekoa atxiloketa guneak izan ziren, kolpearen aurretik agertu ziren horietan, Isabel Perónen agintaritzapean. Gune horietan gertatzen zen guztiak, Calveiroren esanetan (2004: 39), prozedura burokratiko itxura hartzen zuen, eta hierarkia altuagoko

langileen oniritzia zuen. Esana egiteko beharrak eta lanen banaketak erraztu egin zuten makineria hiltzaile hura martxan mantentzen zuten langileek inolako erantzukizun moralik ez sentitzea.

Reatik azaldu zuenez (1992:30), gerra zikinean gorpuak suntsitzeak goitik behera aldatu zuen ordura arte gizarte burgesetan zigorra ulertzeko zegoen era; gorpuak torturatzeko eta erakusteko ohitura progresiboki aldatu zen, erregimenaren kontra egin zuten haiek kartzelatzeari leku eginez, hala informazioa eta boterea lortzeko asmoz. Tortura ez zen diktaduraren salbuespen izugarri bat izan, baizik eta XX. mendetik hona militarrek, preso politikoak, soldadutza egiten ari zirenak eta baita gaizkile arruntak ere zigortzeko indarkeria fisikoaren erabilera sistematizatzea eta logika horretan gehiago sakontzea. «Cada soldado, cada cabo, cada oficial, en su proceso de asimilación y entrenamiento aprendió la prepotencia y la arbitrariedad del poder sobre su propio cuerpo y dentro del cuerpo colectivo de la institución armada» (Calveiro, 2004: 11). Prozesuak tortura eta sarraskia burokratizatu zituen, zalantzan jartzea oso zaila zen ohitura⁸ bihurtu zituen.

Disidenteen gorpuak desagerrarazi zituen diktadurak berak gizartearen pentsaera ere egituratu zuen, Ongia eta Gaizkia irudikatzen zituen oinarrizko izate bat balira bezala, kristau logikari jarraiki. Organizismo⁹ zaharra eraldatu egin zen, teknologia medikoen laguntzarekin: bertsio berri kapitalistan, oinarrizko Ongia eta Gaizkia osasuna eta gaixotasuna ziren, eta gaixotasuna gizartearen gorputzetik sendatzeko, banakako gorputzekin ezabatu behar zen. Diktadurako ekintza militarra, beraz, «labor de saneamiento» izenez ezagutzen zen. Termino hori erabiltzea —haien burua zuritzeko eufemismoa izateaz gain— estatu autoritarioaren logika organizistarekiko koherentea izatea ere bazen. Reatiren hitzetan, logika horretan

se trata a la sociedad como un cuerpo sujeto a posibles infecciones, cánceres, contagios de gérmenes extraños, y se cree necesaria la operación o extirpación de los órganos contaminados. La metáfora del cuerpo enfermo/cuerpo sano está implícita en la política represiva (1992: 44).

Antzeko hitzak erabiliz, zera zioen Pigliak fenomeno honi buruz:

Antes que nada se construyó una versión de la realidad, los militares aparecían en ese mito como el reaseguro médico de la sociedad. Empezó a circular la teoría del cuerpo extraño que había penetrado en el tejido social y que debía ser extirpado. Se anticipó públicamente lo que en secreto se iba a hacer al cuerpo de las víctimas (2001: 36).

Juan Corradiren ustez (1985), subertsioa gizartearen gorputzaren ondoez bat zen, kanporatu behar zen gaixotasun bat. Beatriz Sarlok

OHARRAK

8 | Calveirok naturalizazio gaizto horri «vaciamiento de la muerte» deritzo (2004: 34).

9 | Reatik (1992) eta Sarlok (1987) behin baino gehiagotan erabiltzen duten termino hori. Mende hasierako Argentinan, Carlos Octavio Bunge soziologoak defendatu zuen organizismo soziala. Hark, Estatuaren hurrengo autolegitimotze biologizistek bidea ireki zien. Diktaduran zehar kontzeptu hori berreskuratu izanak zerikusi handia dauka nazismoan zehar balio organizistak berreskuratu izanarekin.

aipatzen du etsaia bere onetik kanpo dagoen pertsona patologiko baten gisa aurkeztu zutela, eta Lambruschini almiranteordearen hitzak ekartzen ditu gogora: «La subversión es un fenómeno psíquico que, enmascarado en una ideología, se crea en el campo político» (1987: 37). Hau da, normala ez den joera bat, maila guztietan hezi behar den desbideraketa (ez dugu ahaztu behar, Foucaultek esan zuen eran, gorputzak objektu bihurtzearen prozesuak boterearen hizkuntzan eta diskurtsoetan duela oinarria). Bistakoa denez, indarkeriaren teknologia ez zen soilik eguneroko hizkuntzan barneratu; horrez gain, beste edozein diskurtsok bezala, erresistentzia-mekanismoak ere sortu zituen.

4. Ondorioak. Bizipenaren krisialdia

Argentinan, diktadura amaitzerakoan, herrialdea demokratikoki berreraikitzeke memoria kolektiboa alde batera uztea beharrezkoa zela iradoki zen. Berrito hutsetik hasteko behar hori justifikatzeko «teoría de los dos demonios» (bi deabruen teoría) izeneko erabili zen, zeinek gertatutakoaren erantzukizuna proportzio berdinetan banatzen zuen gobernu militarren eta gerrilla iraultzailearen artean, eta argentinarrak biktimaren tokian jartzen zituen. Teoria horrekin bat eginez, erakundeek zenbait lege idatzi zituzten, hala nola, Ley de Punto Final (1986), Ley de Obediencia Debida (1987) eta Ley del Indulto (1989). Lege horiek justifikatzeko arrazoi nagusiak gobernu zibilen egoera ahula eta herrialdea egonkortzeko beharra izan ziren. 2004an, ekitaldi ofizial baten bitartez ESMak bere egoitza Memoriaren Museoa egiteko eman ondoren ere, *La Nación* egunkariak Menemen indultuaren aldeko jarrerari eutsi zion; bitartean, beste egunkari batzuek, esaterako *Clarín*ek, lehenago esandakoak argitu zituzten, azalduz ezin zirela berdinean epaitu diktaduraren errepresioa eta gerrillen¹⁰ ekintzak.

1996an *Confines* aldizkariak monografiko bat argitaratu zuen «Memoria y terror en la Argentina 1976-1996» izeneko. Bertan, Casullo (zuzendariak), Fosterrek eta Kaufmanek, besteak beste, aipatzen zuten beharrezkoa zela ez soilik diktadura urteak gogoratzea eta gaitzestea, baizik eta berriro ere hari buruzko hausnarketa politikoa egitea. Aldizkariaren ale hori 90eko hamarkada erdialdean agertu zen «boom de la memoria»¹¹ izeneko korrante errebisionistaren parte da, eta berdinean *Punto de Vista* aldizkariak 1997ko beste ale bat: «Cuando la política era joven: Eva Perón, años setenta, democracia, populismo»¹². Memoriaren boom horrek posible egin zuen amnesia kolektibotik diktaduraren iragan hurbila berreskuratzea; baina, aldi berean, historiaren pasarte hori kontsumorako produktu bihurtu zuen. Hala azpimarratu zuten urte berean bai Calveirok (2004: 163) eta bai Martyniukek (2004: 51 eta 130) ere, damuz esaten dutenean

OHARRAK

10 | Bi editorialak 2004ko martxoaren 28koak dira. Gai berari buruz *Diario de diarios* aldizkari elektronikoak 2004ko martxoaren 31an argitaratu zuen artikulua kontsulta daiteke (<http://www.diariosobrediaros.com.ar/dsd/diarios/-zona_dura/31-3-2004.htm>, [20/2/2008]).

11 | Gabriela Cerrutiren ustez (1997), memoriaren booma Argentinak azken diktadurarekin eduki zuen harremanaren beste etapa bat izan zen. Garai hori, 1995ean hasi zen, HIJOS (Semeak Identitatearen eta Justiziaren alde, eta Ahaztearen eta Isiltasunaren kontra) elkarteak sortu zenean.

12 | Ikus *Confines* aldizkariaren 3. alea, eta *Punto de Vista*ren 58. alea (XX. urtea).

gaiari buruz gehiegi hitz egin dela, publikoa nekatzeraino, sarraskiari garrantzia kendu zaiola, eta diktadura aztertzeko ikuspuntu ideologiko azalekoegia hartu dela, zeinek bi deabruen teoria barkaberaren alde egin zuen. Gainera, Martyniukek zera aipatzen du: «con misticismo se hizo del desaparecido una figura vacía de sustancia, sacralizada, un absurdo sin sentido, una idolatría» (2004: 51).

Herritarrek gehiegikeria politikoen aurrean begiak edo belarriak itxi izana, edo gertatutakoa ahazteko egindako ahalegina ez ziren kritikoki aztertu 80ko hamarkada amaierara arte, baina ukapen horren ondorioek argentinaren fikzioa ezaugarritu zuten hamarkada osoan zehar, Francine Masiellok «internalización de los modos de terror» (1987: 11) deitzen duen fenomenoaren bitartez. *Tiempo de revancha* (Adolfo Aristarain, 1981) filma hizpide hartuta, horrela dio Berkeley irakasleak:

El protagonista que ya no podía seguir viviendo con la mentira de su silencio autoimpuesto, mediante el cual ocultaba la verdad de lo que había visto, se corta la lengua con una navaja; de una vez por todas su fingida mudez se convierte en una realidad permanente (1987: 11-12).

Errepresioak herritarren erresistentzia geldiaraztea eta kulturaren aparatuaren eragina txikiagotzea lortu zuen. Horren ondorioak herritarrengan eta garai hartako fikzioan azaleratu ziren, eta kasu batzuetan fikzioa salaketa bidea bihurtu zen.

Fernando Kofmanek gorago aipatu dugun Steinerren «El silencio y el poeta» (1966) saiakera hartzen du hizpide argentinaren hizkera ez zela azken diktaduraren diskurtso genozidan errugabe izan argudiatzeko (Kofman, 1985:13), eta nazien garaia eta Argentinako 1976-1983 arteko diktadura alderatzen ditu (1985: 13-14). Kofmanen ildo beretik, Jorge Monteleonek idazten du demokrazia heltzean, 80ko hamarkadako idazleek gizarte errudun batekin topo egiteaz gain, hizkuntza errudun batekin ere egin zutela topo: «El desfase entre lo que podía ser dicho y lo que se hallaba oculto alteró toda la discursividad social y el régimen de lo visible en Argentina» (2003: 28). Erregimenaren izugarrikeria isila eta ikusezina zen, haren biktimak bezala; horrek bizipenen kontakizunak bertan behera gelditzea eragin zuen, eta memoria ezbaian jarri zuen. Hitzek izendatzeko zuten gaitasuna zalantzan jarri zen, eta horren ondorioz, poeta batzuek (esaterako, Gelmanek) agramatikaltasunaren muga jardun zuten askotan. Begirada bera, bizipenaren oinarria den ekintza hori berori, erotu egin zen, «corroída» gelditu zen: «El enunciado poético es un ojo en suspenso» (Monteleone, 2003: 208).

Era berean, Martyniukek adierazten du Argentinako desagertuen ezinezko egiten dutela bizipenaren narrazioa: indarkeriak berarekin eraman zituen genozidioaren lekukoak eta lekukotzak. «La

desaparición solo podría ser mostrada» (Martyniuk, 2004: 18). Gertatutakoa kontatzeko ezintasun horrek bizipena gaitzestea eragin zuen diskurtsoa legítimo egiteko bide bezala. Errealitate horren aurrean, Martyniukek zera proposatzen du: «Insistir, aun chocando con el fracaso. Insistir en las correspondencias experiencia y conocimiento; experiencia y relato» (2004: 94). *Fenomenología de la desaparición* saiakera idatzi zuen, eta bertan gaian sakontzen saiatzen direnek aurkitzen duten paradoxa azaltzen du: fenomeno bera desagerraraztea eragiten duen fenomeno bat da Argentinan gertatu zena (krimenaren aztarnak, hala biktimenak nola hiltzaileenak, ezabatu egiten dituzte). Torturatzailen egitekoa gorputzari hitz eginaraztea eta gero isilaraztea, ikusezin bihurtzea zen. Hortik aurrera, Martyniuk Adornoren kale itsura hurbiltzen da: «Creo inútil a la literatura [...], el arte está arruinándose» (2004: 91). Baina, amaieran, genozidioaren bizipen kolektiboa kontatzeko ezintasuna nola gainditu aurkitzen du: «Escribir no sobre, escribir desde la desaparición» (2004:89). Gertatutakoa ahaztu edo hildako museoetan eta antzinako artiboetan izoztuta utzi beharrean, harridura hori mantentzea da gakoa.

Nazismoari buruzko hausnarketa batean, Arendtek idatzi zuen totalitarismoek herritarrak guztiz bakartuta uzten dituela. Batjinen ustez, “banakako” hitzak talde osoaren babesa jasotzen du bidezko gizarteetan, non elkarrizketa erako harremanak posible diren. Gizarte autoritarioek, ordea, koruaren ahotsak bakartu egiten dituzte, eta isiltasun ikaragarri batera kondenatu:

El rompimiento individual y absolutamente solitario del silencio absoluto tiene un carácter horrible y pecaminoso, degenera en un grito que se asusta de sí mismo y se agobia a sí mismo con su existencia importuna y desnuda; la violación solitaria y totalmente arbitraria del silencio impone una responsabilidad infinita o resulta ser injustificadamente cínica; la voz puede cantar tan solo en una atmósfera cálida, en la atmósfera de un posible apoyo por parte del coro, de una fundamental no soledad sonora (Bajtín, 1982: 150).

1976tik aurrera, Argentinan egondako estatu kolpeak lehenago elkarrizketa erakoak ziren gizartearen diskurtsoak bakartu zituen. Atomizazioaren estrategia zentsura bera bezain arrakastatsua edo arrakastatsuagoa izan zen gizarteetan, eta nolabait azaldu egiten du elipsirako, iradokizunerako eta alegoriarako joera hori garaiko literaturan. Batjinek berak nabarmentzen du ezinezkoa dela diskurtso historikoak alde batera uztea, gizakiak egiten duena egiten duela ere, «la palabra no olvida su camino» (1986: 283).

Bibliografía

- ALLUB, L. (1983): *Orígenes del autoritarismo en América Latina*, México: Katún.
- AVELLANEDA, A. (1989): «Argentina militar: los discursos del silencio» en Kohut, K. y Pagni, A. (eds.), *Literatura argentina hoy. De la dictadura a la democracia*, Frankfurt/Main: Vervuert Verlag, 13-30.
- BAJTÍN, M. (1982): *Estética de la creación verbal*, México: Siglo XXI.
- BAJTÍN, M. (1986): *Problemas de la poética de Dostoievski*, México: FCE.
- BALDERSTON, D.; et al. (1987): *Ficción y política. La narrativa argentina durante el proceso militar*, Buenos Aires: Alianza.
- BENJAMÍN, W. (1991): *Para una crítica de la violencia y otros ensayos, Iluminaciones IV*, Madrid: Taurus.
- BUFANO, S. (1984): «La violencia y la muerte, esos hábitos inmorales», *Clarín Cultura y Nación*, 4/10/1984, 4-5.
- CALVEIRO, P. (2004): *Poder y desaparición. Los campos de concentración en Argentina*, Buenos Aires: Colihue.
- CASULLO, N. (2001): «La figura del escucha en Benjamin», *Latin American Studies Association 2001 Paper Archive*, <<http://lasa.international.pitt.edu/members/congress-papers/lasa2001/files/CasulloNicolas.pdf>>, [29/11/2011].
- CORRADI, J. (1985): *The Fitful Republic. Economic, Society and Politics in Argentina*. Boulder, Colorado: Westview Press.
- KOFMAN, F. (comp.) (1985): *Poesía entre dos épocas (Argentina 1976-1983, Inglaterra 1930-1939)*, Buenos Aires: Satura.
- MARTYNIUK, C. (2003): «Adorno, de Auschwitz a la ESMA», *Clarín*, 12/09/2003, de septiembre de 2003, <<http://www.clarin.com/diario/2003/09/12/o-02902.htm>>, [13/2/2008].
- MARTYNIUK, C. (2004): *ESMA, Fenomenología de la desaparición*, Buenos Aires: Prometeo.
- MASIELLO, F. (1987): «La Argentina durante el Proceso: las múltiples resistencias de la cultura» en Balderston et al., *Ficción y política. La narrativa argentina durante el proceso militar*, Buenos Aires: Alianza, 11-29.
- MONTELEONE, J. (2003): «Conjura contra la lengua culpable: relato y poesía», *Mil Palabras*, nº 5, 27-32.
- PIGLIA, R. (2001): *Crítica y ficción*, Barcelona: Anagrama.
- REATI, F. (1992): *Nombrar lo innombrable. Violencia política y novela argentina: 1975-1985*, Buenos Aires: Legasa.
- SARLO, B. (1987): «Literatura, ideología y figuración literaria» en Balderston et al., *Ficción y política. La narrativa argentina durante el proceso militar*, Buenos Aires: Alianza, 30-59.
- SEBALD, W. G. (2003): *Historia natural de la destrucción*, Barcelona, Anagrama.
- STEINER, G. (2003): *Lenguaje y silencio. Ensayos sobre la literatura, el lenguaje y lo inhumano*, Barcelona: Gedisa.
- WEIL, S. (1994): *La gravedad y la gracia*, Madrid: Trotta.